



**Ebazpena, 2019ko uztailaren 11koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena, 2019/2020 ikasturterako lanbide heziketako sormen aplikatuko Euskal Institutuan (ideatk-n) hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenez betetzeko deialdia behin betikoz ebazten duena.**

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 15ko Ebazpenaren bitartez deialdia egin zen 2019/2020 ikasturterako IDEATK-N hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenez betetzeko.

2019ko ekainaren 26eko ebazpenez behin-behinekoz ebatzi zen deialdia erreklamazioak aurkezteko epea irekiz.

Emandako epean ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Deialdiaren zazpigarren atalaren arabera, erreklamazioak aztertu ondoren edo erreklamaziorik ez balego, deialdiaren behin betiko ebazpena jarriko da jendaurrean, Hezkuntza Saileko web-orrian.

Horiek horrela, hauxe

### **EBAZTEN DUT**

**Lehena.-** Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea esleipenaren behin betiko zerrenda, eta baztertutako eskaerak I eta II eranskinetan jasota.

### **ERREKURTSOAK**

Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren leko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 11a

**JON AGIRRE HUERGA**  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**